

**Hiriko txirrindularien elkarte**

Asociación de ciclistas urbanos/as



## 2016 urtean egindako jardueren azalpen- memoria

**Kalapie**

**Hiriko txirrindularien elkarte**

**Asociación de ciclistas urbanos/as**

Iparragirre, 8

20001 Donostia – San Sebastian

T (+34) 943 451 511 / 629 271 481

[kalapie@kalapie.org](mailto:kalapie@kalapie.org)

[kalapie.org](http://kalapie.org)

## AURKIBIDEA

1-	SARRERA .....	3
2-	BILERAK DONOSTIAKO UDALAREKIN.....	3
3-	BILERAK GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETA BATZAR NAGUSIEKIN .....	4
4-	WEB-ORRIA ETA SARE SOZIALAK .....	4
5-	DONOSTIA 2016 FUNDAZIOA / BIZIKLETAZ ADINIK EZ.....	6
6-	KALAPIE-EHU HITZARMENA .....	7
7-	IKASTAROAK ETA EKITALDIAK .....	7
8-	KANPAINAK ETA BIZIKLETAREN SUSTAPENA.....	8
9-	AISIAREKIN ERLAZIONATUTAKO JARDUERAK.....	9
10-	BILERAK CONBICI-REKIN .....	10
11-	HOBETZEKO PROPOSAMENAK .....	10
12-	EIKARTEAREN EKONOMIA .....	12

## 1- SARRERA

**Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkarte**a Hiriko Txirrindularien Elkarte bat da (IFK G20315354), eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Saileko Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago AS/G/02034/1990 zenbakiarekin.

Elkartearen egoitza Donostian dago, Iparragirre kaleko 8. zenbakian, eta hiriburuko Udal Erregistroan inskribatuta dago 160/99 zenbakiarekin. Udal-onurako elkarte izendatu zuten 2001eko urtarrilaren 10ean.

Elkartea arautzen duten oinarriak dira bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzea eta bizikleta-erabiltzaileen interesak eta eskakizunak defendatzea. Oro har, Kalapiek lortu nahi du administrazio publikoek ingurumena errespetatzen duen mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta egungo desplazamendu-moduen eragileak aldatzeko beharraren gainean biztanleen artean eztabaida piztea.

2016an 12 elkartekide berri sartu dira eta 2k baja eman dute. Egun, kuota ordaintzen duten 116 elkartekidek osatzen duten Kalapie.

Jarduerak programatzerakoan, elkarteak aintzat hartzen du genero-diferentzia; hortaz, emakumeen presentzia bultzatzen eta berdintasunaren balioa azpimarratzen saiatzen da.

Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkarteak 2016 urtean zehar burututako jarduera elkartekideei, txirrindulariei, administrazioari eta, oro har, jendeari jakinarazi nahi die. Memoria honetan ikusten denez gero, lan handia egin dugu jarduerak antolatzeko; eta ahaleginak merezi izan du txirrindularien erantzuna bikaina izan da-eta.

Hala da, urte honetan zehar Kalapiek, oro har, mugikortasun iraunkorarekin eta, bereziki, bizikletarekin lotutako jarduera guztietan hartu du parte, batzuetan, hobetzeko proposamenak eginez eta, beste batzuetan, administrazioen jokabideak gaitzetsiz; baina betiere bizikleta sustatzeko balio duten ekintza guztiak laguntzen, bai tokiko mailan bai lurralde-mailan.

## 2- BILERAK DONOSTIAKO UDALAREKIN

2016. urtean zehar Kalapiek bilerak egin ditu Donostiako Udaleko zinegotzi eta teknikariek honako gai hauei buruz hitz egiteko:

- Mugikortasun zinegotziarekin bildu da udal-aurrekontuarekin lotutako gaiak jorratzeko, besteak beste, hirian 30 guneak sustatzea (2016/11/25).
- Donostiako Bizikletaren Behatokia. 2014. eta 2015. urteetako memoriak berrikusi dira 2016 urteko memoria planifikatzeko. Era berean, hirian egingo diren hurrengo proiektuak aztertu dira (azaroak 8).
- Ingurumeneko Kontseilu Sektorialean eta Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean parte hartu du.
- Teknikariek bildu da. Bizikletaren Azoka eta Mugikortasunaren Astea prestatzeko.

- Autobus-geltoki berriak dagoen bizikletentzako aparkalekua bisitatu du.

### **3- BILERAK GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETA BATZAR NAGUSIEKIN**

Urtean zehar, Kalapie Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Saileko eta Lehendakaritza Saileko arduradun politiko zein teknikariek bilerak, tailerrak eta abar egin ditu. Jarraian zehazten dira egindako bilerak:


- Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua. Bilerak urtarrilaren 12an, apirilaren 14an eta ekainaren 15ean egin ziren. Foru-diputatuaren gidaritzapean egindako bilerotan, 2015eko Kudeaketa Plana ebaluatu egin zen, 2016rako aurrekontuen berri eman zen eta 2016rako bizikleta bidezko turismoarekin lotutako jarduerak planifikatu egin ziren.
- Bizikletaren aldeko udal-esperientzien gaineko jardunaldiak. Otsailaren 26an egin ziren eta, bileran, udalek bizikletaren inguruan bizitako esperientzia baikorrak azaldu zituzten.
- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren gaineko udal-ordenantzei buruzko jardunaldia. Aurretik, urriaren 29an, oinezkoak eta txirrindulariak babesten dituzten ordenantzak egiteko premia azpimarratzen zuen zirriborro bat aztertu zen.
- Gipuzkoa 2026 Plan Estrategikoa. Kalapie Ingurumen, Lurralde eta Iraunkortasun batzordean parte hartu du. Plan Estrategiko hori, "Etorkizuna eraikiz", Diputatu Nagusiaren kabineteak zuzendu eta antolatu du.

### **4- WEB-ORRIA ETA SARE SOZIALAK**

Aurten web-orri berri bat jarri dugu martxan, elkartekideekin eta, oro har, txirrindulariekin harreman hobea mantentzen eta elkartearen lana errazten lagundu diguna.

Apirilaren 6an web-orri berriaren ezaugarriak jakinarazi genizkien elkartekideei eta, oro har, jendeari:

## ÚLTIMAS NOTICIAS



10 Nov 2016 / 0 Comentarios

### LOS PRESUPUESTOS PARA 2017 DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

La Asociación de Ciclistas Kalapie quiere dar su opinión sobre el Proyecto de Presupuestos enviado por la Diputación Foral de Gipuzkoa a las Juntas Generales....

[Leer más](#)



30 Oct 2016 / 0 Comentarios

### EN BICI SIN EDAD – TERCERA FORMACIÓN DE VOLUNTARIOS

Seguimos con las formaciones de En Bici Sin Edad. Ya se han realizado dos y vamos a por la tercera. ¡Anímate! Día de formación: 5...

[Leer más](#)



16 Oct 2016 / 2 Comentarios

### CURSOS APRENDER ANDAR EN BICI Y/O COGER SOLTURA


La asociación de ciclistas urbanos Kalapie organiza un curso para aprender a andar en bici y otro para coger soltura. Días: 12, 13, 19 y...

[Leer más](#)

Web-orria (<http://kalapie.org>) informazioa biltzen duten hainbat zutabetan banatuta dago:


- **Orri nagusia:** home, albisteen laburpena, buletinera harpidetzea, ...
- **Kalapie.** Elkarteari buruzko informazio orokorra, historia, nola egin elkartekide, bideoteka, dokuteka eta lotutako erakundeak. Atal honetan Aldundiaren logoa agertzen da, gure jardueren laguntzaile gisa. <http://kalapie.org/entidades-relacionadas/>
- **Zer egiten dugu?** Kanpainei, ikastaroei, proiektuei, irteerei, ekitaldiei eta abarrei buruz.
- **Donostia bizikletaz.** Oso informazio zabala Donostiako bidegorriei, ibilbide nabarmenei, udal-ordenantzari, bizikleta-dendei eta abarrei buruz.
- **Intermodalitatea.** Bizikleta trenean eta autobusean sartzeko aukera.
- **Albisteak**
- **Kontaktua**

Irailaren erdialdean abian jarri zen bisita-kontagailua, eta esan dezakegu, hortik aurrera, hilean 1.000 bisita inguru jaso ditugula.



Posta elektronikoan 18 kontsulta orokor, txangoen gaineko 10 kontsulta eta 12 kexa/iradokizun jaso ditugu.

Aurten, 37 albiste argitaratu dira web-orrian, guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita (<http://kalapie.org/eu/feed/> - <http://kalapie.org/feed/>). Albiste horiek, era berean, 495 harpideduni astero bidaltzen zaien buletinaren bidez hedatu dira; eta harpidedunen %30,8k ireki dituzte jasotako mezuak.



Sare sozialei dagokienez, azpimarratu beharra dago Facebooken 982 jarraitzaile, Twitterren 1.042, Instagramen 100, Linkedinen 15 eta Youtubeko kontuan 13 harpidedun ditugula. Orotara, Twitterreko kontuan 3.887 mezu eta Instagramekoan 33 argazki argitaratu dira. Datuok 2016ko azaroaren erdialdean bildu ziren.

## 5- DONOSTIA 2016 FUNDAZIOA / BIZIKLETAZ ADINIK EZ

Kalapie elkarteak diru-laguntzak jaso ditu Donostia 2016ko “Energia Olatuak” programaren bitartez, “Bizikletaz adinik ez” (Cycling Without Age – CWA) proiektua abiarazteko. Proiektuak aukera emango die adinekoei Donostiatik trizikloz paseatzeko, guztiz doan.

Ekimen honek herritarrei adinekoak gizarteratzeko eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko aukera ematen die, trizikloz egindako ibilaldi lasai eta patxadatsu baten bidez. Proiektuaren helburua da adinekoek baloratzen dituztela sentitzea, bizikletaz paseatzera atera ahal izatea eta “airea aurpegian sentitzea”. Proiektu hau Cycling Without Age (CWA) egitasmoan oinarrituta dago; CWA 2013an sortu zen Kopenhagen eta, egun, mundu osoko 200 hiri baino gehiagotan dago abian.

Donostian, "Bizikletaz adinik ez" proiektuak irailean eman zituen lehen urratsak. Baina lehenago, ondoz ondoko txandetan, eta Txitaren laguntzarekin, CWA trizikloen pedalak eragingo dituzten boluntarioak prestatu dira.

Guztira, 3 prestakuntza-ikastaro egin dira eta 36 pertsonak hartu dute parte. Bestetik, irteera pilotuak egiten ari dira, asmoa baita 2017an zehar proiektua martxan jartzea.

## 6- KALAPIE-EHU HITZARMENA

2015. urtean sinatutako hitzarmenen honen ondorioz, unibertsitatean bizikleta sustatzeko helburua duena, bilerak egin ditugu hitzarmenaren arduradunekin hainbat jarduera zehazteko. Zehazki, bi bilera egin ditugu:

- **IKD Gazte.** Lehen jarduera IKD programa bat izan zen: ikasleek Kalapie proposatutako erronka bati aurre egin behar zioten unibertsitateko bizikleta-mugikortasunaren inguruan. Eta ikasleek bai Unibertsitatearen bai Kalapieren aintzatespena jaso zuen lan interesgarri bat egin zuten.
- **Bizikleta tailerra.** Irailaren 19, 20, 21 eta 22an, Mugikortasunaren Astearekin batera, EHUko Gipuzkoako Campusean tailer hau egin zen. Tailerrean 75 ikasle eta irakasle (%60 gizonak eta %40 emakumeak) hartu zuten parte.

## 7- IKASTAROAK ETA EKITALDIAK

Jakitun gara txirrindularientzat prestakuntzak garrantzi handia duela eta, horregatik, mugikortasun iraunkorarekin, oro har, bizikletarekin eta txirrindularitzaren historiarekin lotutako zenbait liburu erosi eta irakurri ditugu. Halaber, elkartekideen artean Ciclosfera eta Bizikletaz aldizkariak banatzen ditugu.

- **Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak.** Ekainaren 27, 28, 29 eta 30ean, eta azaroaren 19, 20, 26 eta 27an egin dira. Ikastaroetan 34 pertsonak hartu zuten parte: %90 emakumezkoak, batez ere adin aurreratukoak, eta %10 gizonak.
- **Bizikletaren oinarrizko mekanika.** Hiru ikastaro egin dira: bat martxoaren 14, 16 eta 17an, bestea ekainaren 6, 7 eta 8an eta azkena azaroaren 14, 16 eta 17an. Parte-hartzaileen %65 gizonak eta %35 emakumeak izan ziren.
- **Bizikletarako GPSa erabiltzea.** Ikastaro bat egin da eta 12 pertsonak hartu dute parte: parte-hartzaileen %70 gizonak eta %30 emakumeak izan ziren. Helburua zen teknologia berriak, zehazki, Wikiloc, Strava eta bestelako tresnak bizikletara aplikatzea.
- **Ingurumen eta mugikortasun ikastaroa.** Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren lankidetzarekin, hamabost eguneko tailer bat garatu da ingurumena, mugikortasunarekin lotuta, tokiko mailan aztertzeke helburuarekin. 20 pertsona bertaratu dira, %60 emakumeak eta %40 gizonak.

## 8- KANPAINAK ETA BIZIKLETAREN SUSTAPENA

Kapitulu honetan bizikleta sustatzeko balio duten eta denboran zehar egonkorrak izan ez diren jarduera guztiak sartuko ditugu.

- **“Ipurdi bustirik ez”**. Kanpaina hau otsailaren 17 eta 18an egin zen. Hirian aparkatutako bizikletetako zeletan estalkiak jarri ziren. Kanpaina honen bidez bizikleta neguan ere erabiltzea bultzatu nahi dugu. “Neguan ere bizikletaz” - <http://kalapie.org/eu/ipurdi-bustirik-ez/>
- **Ongietorria Wroclawko txirrindulariei**. Donostiako alkatetzak proposatuta, maiatzaren 31n Irunen ongietorria eman zitzaien Poloniako Wroclawtik (2016ko Europako Kulturaren Hiriburua Donostiarekin batera, Breslavia izenez ere ezaguna) eta Wiesbademetik (1981etik Donostiarekin eta Wroclawrekin senidetuta dagoen hiria) zetorren txirrindulari-talde bati. Ibilbidea egin ondoren hiriko alkateak harrera egin zigun.
- **Bizitruk**. Ekainaren 18an Kalapiek bigarren eskuko bizikleten salerosketarako azoka hau antolatu zuen, mugikortasun iraunkorra eta baliabideen berrerabilpena sustatzeko asmoz. Azokan 98 bizikleta erregistratu eta beste 49 saldu ziren. <http://kalapie.org/eu/bizitruk/>
- **Hiria bikeatzen**. Strava kirol-erregistroen aplikazio modernoek lanera bizikletaz joateko kanpaina bat abiarazi zuela aitzaki, maiatzaren 10ean Kalapien aukera aprobetxatu genuen hirian geure kanpaina propioa abiarazteko. Ideia zen track horiek guztiak (GPSan erregistratutako ibilbideak) biltzea gordetzeko edo delako aplikaziora igotzeko eta, azken finean, bizikletaz egindako Donostiako eremuen mapa bat sortzeko. <http://kalapie.org/eu/hiria-bikeatzen/>
- **Donostiako Bizikleta Azoka**. Kalapiek Donostiako Udalak antolatutako Bizikleta Azokan parte hartu zuen maiatzaren 27, 28 eta 29an. Bertan, Kalapiek mugikortasuna nola ikusten duen azaldu eta eskatu zitzaion informazio guztia eman zuen.
- **Hidrologikoak**. Hau Cristina Enea fundazioaren programa bat da, Urumea ibaia aztertzeke eta balioesteko helburua duena. Kalapiek programan parte hartu zuen: ibaiertzetik bizikletaz egiteko txango bat antolatu zuen, ibilguak hurrengo urteetan biziko dituen aldaketak azaltzeko.
- **Txirrindularientzako askaria**. Irailaren 22an, Mugikortasunaren Astearren barruan, Kalapiek Kontxa pasealekuan askari bat antolatu zuen txirrindulari guztiekin.
- **STOP istripuak**. Azaroaren 20an Kalapiek Alderdi Ederren egindako ekitaldiarekin bat egin zuen, txirrindulariek errepideetan dituzten istripuen aurka protestatzeko.
- **Kalapien historiari buruzko hitzaldia**. Otsailaren 20an Durangon egin zen Iraunkortasun Azokan.



## 9- AISIAREKIN ERLAZIONATUTAKO JARDUERAK

Urtean zehar, igandeetan, txirrindulari-martxak egin dira Arditurrira, Hendaiara, Ordiziara, Zumaiara, Perihoradera, Usurbilera, Meategietara eta Berara. Orotara, 12 irteera egin ditugu, web-orrian 3 bakarrik jakitera eman diren arren. Txirrindulari kopurua aldatu egin da klimatologiaren eta irteeraren zailtasun-mailaren arabera, baina guztira 47 pertsonak hartu dute parte: emakumezko 32 eta gizonezko 15.

Donostia bizikletaz ezagutu nahi duten pertsona guztientzako 3 ibilbide osasungarri argitaratu dira:

<http://kalapie.org/eu/paseo-berezia/>

<http://kalapie.org/eu/donostiko-ekialdea/>

<http://kalapie.org/eu/donostiko-mendebaldea/>

Bestetik, bidaiatzen ari diren zikloturistei Donostiara hiriko ardatz desberdinetatik iristen laguntzeko hainbat ibilbide-gida argitaratu dira baita ere. Ibilbide horiek Donostiako Turismo Bulegoari helarazi dizkiogu bizikleta Donostiara iristeko ibilgailu gisa txertatu dezan. Kalapie hainbeste tematu delako, azkenean ibilbideak bulegoaren webgunean sartu eta argitaratu dira.

<http://www.sansebastianturismo.com/eu/etorri/nola-iritsi>

### ¿CÓMO LLEGAR?



Su situación estratégica y el enorme número de infraestructuras con las que cuenta han conseguido convertir a Donostia / San Sebastián en un lugar de fácil acceso, conectado a través de todo tipo de transportes con el resto del mundo. Escoge el que más se adapte a ti, ¡comienza tu viaje!



## EN BICI

Te proponemos 3 rutas para llegar a San Sebastián por el este, el oeste y el sur de la ciudad. Se han diseñado teniendo en cuenta las siguientes directrices:

- Carriles bici o bidegorris
- Calzada con el menor tráfico posible
- Ruta por zona rural
- Recorrido con menor pendiente posible

A continuación podéis visualizar las indicaciones y descargar dichas rutas:

- [Zarautz-Donostia](#)
- [Andoain - Donostia](#)
- [Hendaia - Donostia](#)

<http://mugibili.euskadi.eus/mugibili/view.do?id=49225&locale=eu>

<http://mugibili.euskadi.eus/mugibili/view.do?id=49234>

<http://mugibili.euskadi.eus/mugibili/view.do?id=49287>

## 10- BILERAK CONBICI-REKIN

Kalapie ConBicirekin federatuta dago eta, horrenbestez, urtean bitan ConBiciren batzarretan parte hartu behar du.

Lehenengo bilera Corellan, Nafarroan, egin zen apirilaren 16an, eta hantxe izan ziren Kalapieko elkartekide batzuk.

Bigarrena Valentzian egin zen azaroaren 4, 5 eta 6an, eta Kalapieko presidentea bertaratu zen.

## 11- HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Honako hauek dira Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei egoera hobetzeko egiten dizkiegun proposamenak:

- Inbertsioak Batzar Nagusiek aho batez onartu zuten Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean planteatzen den zenbatekora igotzea;
- Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia onartzea eta abian jartzea;
- Gipuzkoako oinarrizko bidegorri-sarea eraikitzen jarraitzea;
- Gipuzkoan jada existitzen diren eta eraikiko diren bizikleta-bideak seinaleztatzeko plan serio bat prestatzea;

- Bizikleta eskola-eremuan sustatzea;
- Beste garraibideekin intermodalitatea erraztea;
- Eurovelo sarearen aldeko apustu irmoa;
- Bizikleta bidezko turismoa eta zikloturismoa bultzatzea;

Donostiako Udalarari dagokionez:

- 30 guneak ia hiri osora hedatzea, trafikoa lasaitzea nabarmenduz;
- Txirrindularientzako lotura azkar eta segurua ezartzea Maria Kristina zubitik Herreraraino;
- Bizikleta-bideak Altzan;
- Bidegorria Herreratik Pasaia, Trintxerpe eta Bidebietaraino;
- Bulebarreko bidegorria Zurriolarekin zuzenean lotzea, Bretxatik pasa gabe;
- Hiriko aparkalekuen plana, bizilagunen eskaerak kontuan hartuta, aparkaleku itxi eta seguruak lehenetsiz;
- Bidegorrietan seinale bertikal eta horizontalak jartzea;
- “Neguan ere bizikletaz” kanpaina berriro ere egitea, neguan txirrindulari kopuruak ez dezan hainbeste behera egin;
- Garraio bertikaleko planean aurreikusitako jarduerak betearaztea hiriko auzo garaietara bizikletaz iristeko;
- Txirrindularientzako heziketa-kanpainak oinezkoak eta Zirkulazio-arauak errespetatzen;
- Bidegorri-sarea mantentzeko eta garbitzeko plan bat prestatzea: pintura, zintarriak beharrezkoak, bide-zorua, eta abar.;
- Donostiako Bizikletaren Behatokiaren funtzionamendua sustatzea;

## 12- EIKARTEAREN EKONOMIA

Kalapiaren finantzen gaineko informazio laburra eman nahi dugu. Nahi duten elkartekideek informazioa xehatua egoitzan aurkituko dute bilera egiten dugun egunetan etortzen badira, edo beste edozein egunetan aurrez eskatzen badigute.

**Diru-sarrerak:** gure diru-sarrerek hiru jatorri dituzte: elkartekideen kuotak, diru-laguntzak eta administrazio publikoekin sinatutako hitzarmenak, proposatzen diren proiektuen eta elkarteak antolatzen dituen jardueren arabera. Elkartekideen kuotek diru-sarreraren %30 osatzen dute, administrazioen diru-laguntzek %60 eta gainerako %10a elkarteak egiten dituen jardueretatik ateratzen da: Bizitruk, txangoak, eta abar.

**Gastuak:** gastuak, alde batetik, elkartearen ohiko funtzionamenduak eragiten ditu, lokalaren gastuak, hau da, bulego-materiala, argia, telefonoa, eta abar; bestetik, administrazioei proposatzen dizkiegun proiektuek eragiten dituzte, besteak beste, urtean zehar egiten ditugun eta memorian azaltzen diren jarduera anitzak.

Aurten, inbertsio nagusia izan da bizikletan ibiltzen ikasi nahi duten pertsonentzako bizikletak erostea. Bizikleta elektriko bat erosi dugu baita ere elkartekideek, bizikleta probatzeaz gain, haren funtzionamendua eta abantailak ezagutzeko aukera izan dezaten.

Gastuen beste kapituluetakoa bat izan da hiriko txirrindularitzarekin eta zikloturismoarekin lotutako liburu eta eskuliburuaren erosketa. Liburuok elkartekide guztien eskura daude.

Hor sartzen dira baita ere Kalapieko elkartekideek ConBiciren bileretan, hiriko txirrindularitzarekin lotutako biltzarretan eta abarretan parte hartzetik eratorritako gastuak.

Elkartearen funtzionamenduak eragiten dituen gastuak guztien %25 dira, eta gainerako %75 proiektuetatik eratorritako gastuak dira (bizikleta edota liburuen erosketa, ematen diren ikastaroak, itzulpenak, eta abar).

Esan bezala, informazio xehatua interesa duten elkartekide guztien eskura dago.